Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko apirilaren 21a, asteartea — 73 — Martes, a 21 de abril de 2020

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## AZPEITIKO UDALA

*Covid-19 birusak kaltebera ekonomikoan utzi dituen herritarren errenta nahiz mailegu gastuei erantzuteko diru-laguntza deialdia.*

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alarma-egoera ezarri zuen lurralde osoan, Covid-19k eragindako osasun-larrialdiko egoerari aurre egiteko.

Osasun-krisiko egoera horrek udalerriko eremu ekonomikoan dituen ondorioei aurre egiteko, Alkatetzaren 2020ko apirilaren 14ko Ebazpenaren bidez onartu zen Covid-19 birusa hedatzearen ondorioz egoera ekonomiko ahulean daudenei alokairuaren eta maileguaren zati bat ordaintzeko laguntzen deialdia.

Laguntza horren helburua da beste administrazio batzuek beren eskumenen esparruan har ditzaketen neurri ekonomikoak osatzea.

Horren ondorioz, Alkatetza honek, apirilaren 7ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan jasotako konpetentzietan oinarrituta, honako hau

XEDATZEN DU

*Lehenengoa.* Covid-19 birusak ekonomikoki eragindako herritarren alokairu- eta mailegu-gastuei erantzuteko laguntzen deialdia onartzea.

Deialdiaren edukia ebazpen honekin batera doa, 1. eranskin gisa.

*Bigarrena.* Laurogei mila euroko (80.000 €) gastua baimentzea, Azpeitiko Udalaren aurrekontu-sail honen kargura:

1.1100.480.152.30.02 2020 Alokairu laguntzak - 80.000 €.

*Hirugarrena.* Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Azpeitiko Udalaren webgunean –laguntza ekonomikoen programa– argitaratzeko agintzea.

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da.

Azpeitia, 2020ko apirilaren 14a.—Nagore Alkorta Elorza, alkatea. (1824)

1. ERANSKINA

*Covid-19 birusak kaltebera ekonomikoan utzi dituen herritarren errenta nahiz mailegu gastuei erantzuteko diru-laguntza deialdia.*

TESTUINGURUA

Covid-19 birusaren hedapenak sortutako krisiaren ondorioak osasun-arlokoak ez diren beste eremu batzuetara ere heltzen ari da.

Testuinguru honetan Azpeitiko Udalak 80.000 €ko diru partida bat habilitatu du. Laguntza lerro hau, beste Administrazioek bere eskumenen esparruan har ditzazketen neurri ekonomikoak osatzera bideratuta dago.

## AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

*Convocatoria de ayudas para dar respuesta al impacto económico provocado por el virus Covid-19 en el ámbito de la vivienda.*

El Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, declaró el estado de alarma en todo el territorio con el fin de afrontar la situación de emergencia sanitaria provocada por el virus Covid-19.

Con el fin de hacer frente a los efectos que esta situación de crisis sanitaria esta ocasionando en el ámbito económico del municipio, mediante Resolución de Alcaldía de 14 de abril de 2020 se ha aprobado la convocatoria de ayudas que tiene como finalidad el pago de parte del alquiler y parte del préstamo a quienes se encuentren en una situación económica vulnerable como consecuencia de la propagación del virus Covid-19.

Esta ayuda esta encaminado a complementar en el plano de competencias propias, las medidas económicas que otras administraciones puedan adoptar en el plano de las suyas.

En su virtud, esta Alcaldía, en base a las cmpetencias otrogada en el artículo 21 de la Ley 7/1985 de 7 de abril,

DISPONE

*Primero.* Aprobar la convocatoria de ayudas para dar respuesta a los gastos de alquiler y de préstamo de los ciudadanos afectados económicamente por el virus Covid-19.

El contenido de la convocatoria se acompaña a la presente resolución como anexo 1.

*Segundo.* Autorizar un gasto por importe de ochenta mil euros (80.000 €), con cargo a la siguiente partida presupuestaria del Ayuntamiento de Azpeitia:

1.1100.480.152.30.02 2020 Ayudas alquiler - 80.000 €.

*Tercero.* Ordenar la publicación de la presente resolución en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web del Ayuntamiento de Azpeitia, –programa de ayudas económicas–.

Lo que se publica para conocimiento general.

Azpeitia, a 14 de abril de 2020.—La alcaldesa, Nagore Alkorta Elorza. (1824)

ANEXO 1

*Convocatoria de ayudas para dar respuesta a los gastos de alquiler y de préstamo de los ciudadanos afectados económicamente por el virus Covid-19.*

CONTEXTO

El efecto de la crisis generada por la propagación del virus Covid-19, está llegando a tener consecuencias en ámbitos distintos al sanitario.

En este contexto, el Ayuntamiento de Azpeitia ha habilitado una partida de 80.000 €. Esta línea de ayudas está destinada a complementar las medidas económicas que puedan adoptar otras Administraciones en el ámbito de sus competencias.

EK\CV GAO-I-2020-01824

Eremu hontan egokitzat jo da Covid-19 birusaren hedapenaren ondorioz egoera ekonomiko kalteberan daudenen alokairu nahiz mailegu gastuetan diruz laguntzea.

Deialdi horri aurre egiteko 2020 ekitaldiko udal aurrekontuan 80.000 euroko gastua baimenduko da honako partidatik: 1 1100.480.152.30.02 2020 zenbakidun «Alokairu laguntzak» partida.

*1. artikulua. Xedea eta epe lagungarria.*

Laguntza honen xedea da Covid-19 birusaren hedapenaren ondorioz egoera ekonomiko kalteberan daudenei alokairua eta maileguaren zati bat ordaintzea. Beti ere deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.

Diru-laguntza hori deialdi honetan ezarritako baldintzen arabera emango da.

Laguntza 2020ko apirila eta maiatzeko errenta nahiz mailegu gastuei aplikatuko zaie.

*2. artikulua. Organo eskuduna.*

Oinarri hauek onartzeko eskumena duen organoa Alkatea da (Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak dioenaren arabera).

*3. artikulua. Ezargarri den araudia.*

Diru-laguntza hauek ematea bera, eta onuradunaren eta erakunde emailearen arteko harreman juridikoa, deialdi honek eta diru-laguntzak ematen direnean indarrean den araudiak aginduko ditu.

Deialdi honetan ezarritakoaz gain, honako hauek arautuko dute diru-laguntza:

— Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.

— Diru-laguntzen Erregelamendu Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa.

— Azpeitiko Udalak emandako diru-laguntzak kudeatzeko ordenantza orokorra.

— Araudi osagarri gisa eta beti ere deialdiak dioenarekin bateragarri denean kontuan hartu ahal izango dira 2017ko maiatzaren 9an Azpeitiko Udalak onarturiko «Azpeitiko herrian etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak ematea arautuko dituzten oinarriak».

*4. artikulua. Onuradunak.*

Onuradunak izango dira, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean ondorengo baldintza zehatzak betetzen dituzten pertsona edo bizikidetza unitateak:

a) Laguntza alokairu gastuetarako bada:

Eskatzaile edo Bizikidetza Unitateko kideetatik inork ez izatea beren jabetzan etxebizitzarik, herentzia edo dohaintza bidez eskuratutako etxebizitza baten edo batzuen titularkide diren kasuetan ezik, baldin eta titularkidetasun horren portzentajeak ez badu % 50 gainditzen eta etxebizitzetako partaidetzen balioa 75.000,00 eurotik gorakoa ez bada.

Etxebizitza ez izatearen baldintza salbuetsita geratuko da baita ere ondorengo kasuetan:

1. Etxebizitzak gutxieneko bizigarritasun baldintzak ez betetzea.

2. Banantze, dibortziatze edota izatezko bikote lotura amaitzeko prozesu baten ostean, etxebizitza judizialki beste ezkontidearen familia-helbide gisa esleitzen bada.

3. Etxebizitzak indarreko araudian xedatutako irisgarritasun baldintzak ez betetzea, titularrak 70 urte edo gehiagokoak diren kasuetan.

4. Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko

En este ámbito se ha considerado adecuado subvencionar los gastos de alquiler o préstamo de personas en situación económica vulnerable como consecuencia de la propagación del virus Covid-19.

Se autoriza un gasto de 80.000 euros en el presupuesto municipal 2020 con arreglo a la siguiente imputación presupuestaria: Partida de «Ayudas alquiler»: 1 1100.480.152.30.02 2020.

*Artículo 1. Objeto y plazo subvencionable.*

El objeto de estas ayudas es el pago de parte del alquiler y parte del préstamo a quienes se encuentren en una situación económica vulnerable, como consecuencia de la propagación del virus Covid-19, siempre que cumplan los requisitos establecidos en la presente convocatoria.

Esta subvención se concederá en los términos establecidos en la presente convocatoria.

La presente ayuda se aplicará a los gastos de alquiler y préstamo correspondientes a los meses de abril y mayo de 2020.

*Artículo 2. Órgano competente.*

El órgano competente para la aprobación de estas bases es el Alcalde, de conformidad con la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Procedimiento Local.

*Artículo 3. Normativa aplicable.*

La concesión de estas subvenciones, así como la relación jurídica entre el beneficiario y la entidad concedente, se regirá por lo dispuesto en la presente convocatoria y en la normativa vigente en el momento de la concesión de las mismas.

Además de lo establecido en la presente convocatoria, esta subvención será regulada por:

— Ley General de Subvenciones 38/2003 de 17 de noviembre.

— Reglamento General de Subvenciones, aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.

— Ordenanza general para la gestión de las subvenciones concedidas por el Ayuntamiento de Azpeitia.

— Como normativa complementaria y siempre que sea compatible con lo que establezca la convocatoria, se podrán tener en cuenta las «bases reguladoras para la concesión de subvenciones para el alquiler de viviendas en el municipio de Azpeitia» aprobadas por el Ayuntamiento de Azpeitia el 9 de mayo de 2017.

*Artículo 4. Beneficiarios.*

Serán beneficiarias las personas o unidades convivenciales que a la fecha de publicación de esta convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, cumplan los siguientes requisitos específicos:

a) Si la ayuda es para gastos de alquiler:

Que ninguno de los solicitantes o miembros de la Unidad Convivencial sea propietario de alguna vivienda, salvo en el caso de que sea cotitular de una o varias viviendas adquiridas en herencia o donación, siempre que el porcentaje de dicha cotitularidad no supere el 50 % y el valor de la participación en las mismas no supere los 75.000,00 euros.

Se exceptúa del cumplimiento de la condición de ser propietario de vivienda, en los siguientes casos:

1. Viviendas que no reúnan las condiciones mínimas de habitabilidad.

2. Haber sido asignada judicialmente como domicilio familiar del otro cónyuge tras un proceso de separación, divorcio o de extinción de parejas de hecho.

3. No reunir las condiciones de accesibilidad previstas por la normativa vigente cuando sus titulares sean personas de 70 años o más.

4. Formar parte de un edificio que no cumpla las determinaciones relativas a accesos y aparatos elevadores contenidas


EK\CV GAO-I-2020-01824

sistemen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzerakoan, jasotako sarbideei eta igogailuei buruzko xedapenak betetzen ez dituen eraikin batekoa izatea, betiere haren kideetako bat mugikortasun mugatu iraunkorra duen desgaitua bada.

Etxejabeak diren salbuetsitako kasuetan, Udal Teknikari baten txostena onartuko da, etxebizitzak bizigarritasun nahiz irisgarritasun baldintzak betetzen ez dituela egiaztatzeko.

b) Laguntza etxea erosteko mailegu gastuetarako bada:

Eskatzaile edo Bizikidetza Unitateko kideetatik inork ez izatea beren jabetzan bigarren etxebizitzarik, herentzia edo dohaintza bidez eskuratutako etxebizitza baten edo batzuen titularkide diren kasuetan ezik, baldin eta titularkidetasun horren portzentajeak ez badu % 50 gainditzen eta etxebizitzetako partaidetzen balioa 75.000,00 eurotik gorakoa ez bada.

c) Alokairu nahiz mailegu gastuak diruz lagundu ahal izateko, eskatzaileak alokatu edo mailegatuta duen etxebizitzan erroldatua egon beharko du 2020ko martxoaren 14a baino lehen.

d) Alokairu nahiz mailegu gastuak diruz lagundu ahal izateko eskatzaileak kalteberatasun ekonomikoko egoeran dagoela egiaztatu beharko du.

Deialdi honen ondorioetarako kalteberatasun ekonomikoa ematen dela ulertuko da:

— Besteren konturako langileen kasuan, osasun-larrialdiak eragindako krisiaren ondorioz eskatzailea langabezian geratu bada.

— Langile autonomoen kasuan, diru-sarreren galera edo salmenten % 40ko beherakada edo haundiagoa jasaten duten egoera.

Bi kasuetan, kalteberatasun ekonomikoa ezaugarritzat duen egoera gertatzen dela jotzeko, gainera, eskatzen da ordaindu beharreko errenta gehi komunitate gastuak edo maileguaren zenbatekoa, pertsonaren edo bizikidetza-unitatearen apiril eta maiatzeko diru-sarrera haztatuen % 30 baino handiagoak izatea.

e) Bizikidetza Unitateko kide guztiek Azpeitiko Udaleko zerga, tasa, ariel eta zehapenen ordainketak egunera izan behar dituzte.

f) Onuradunaren eta errentatzailearen edo prestamistaren artean ezin izango da inolako familia-loturarik izan odolkidetasun edo ahaidetasuneko bigarren mailaraino.

g) Bizikidetza Unitateko *diru-sarreren muga, honakoa baino txikiagoa izango da:

— 21.000 € gordin urtean (eskatzailea bakarra bada).

— 35.000 € gordin urtean (bi eskatzaile edo gehiago badira).

* Diru-sarreren zenbatekoa kontatzeko epealdia:

Kontuan hartuko diren diru-sarrera gordinak 2020ko apirila eta maiatzekoak izango dira.

Datu honekin urte guztiari dagokion diru-sarrera baliokidea aterako da (14 paga) eta horren ondorioz, 7.artikuluko taulako atalen arabera laguntza banatu.

* Banandu edo dibortziatuen kasuan, diru-sarreren zenbatekoa kalkulatzerakoan seme-alabengatiko mantenu pentsioa bai eta hipoteka kargei dagokien hileroko kuoten zenbatekoak kenduko zaizkie.

h) Laguntza hauek jaso ahal izateko, eskatzaileak ezin izango du aurrezki kontzeptu bezala 25.000,00 € baino gehiago aurrezturik izan.

en el Decreto 68/2000 de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación, siempre que alguno de sus miembros sea una persona discapacitada con movilidad reducida permanente.

En los casos exentos del cumplimiento de dicha condición, se aceptará el informe de algún Técnico Municipal para justificar el incumplimiento de las condiciones de habitabilidad y accesibilidad de dichas viviendas.

b) Si la ayuda es para gastos de préstamo para compra de vivienda:

Que ninguno de los solicitantes o miembros de la Unidad Convivencial sea propietario de una segunda vivienda, salvo en el caso de que sea cotitular de una o varias viviendas adquiridas en herencia o donación, siempre que el porcentaje de dicha cotitularidad no supere el 50 % y el valor de la participación en las mismas no supere los 75.000,00 euros.

c) Para poder subvencionar los gastos de alquiler o préstamo, el solicitante deberá estar empadronado en la vivienda que tiene alquilada o comprada antes del 14 de marzo de 2020.

d) Para poder subvencionar los gastos de alquiler o préstamo, el solicitante deberá acreditar que se encuentra en situación de vulnerabilidad económica.

A los efectos de esta convocatoria se entenderá que existe vulnerabilidad económica:

— En el caso de trabajadores por cuenta ajena, cuando el solicitante se haya quedado en paro como consecuencia de la crisis derivada de la emergencia sanitaria.

— En el caso de trabajadores autónomos, cuando sufran una pérdida de ingresos o una caída de ventas igual o superior al 40 %.

En ambos casos, para considerar que se produce una situación caracterizada como vulnerabilidad económica, se exige además que el importe de la renta más los gastos de comunidad o cuota del préstamo a pagar sean superiores al 30 % de los ingresos ponderados de abril y mayo de la persona o unidad convivencial solicitante.

e) Todos los miembros de la Unidad Convivencial tendrán que estar al corriente del pago de impuestos, tasas, arbitrios y sanciones del Ayuntamiento de Azpeitia.

f) El beneficiario no tendrá vinculación familiar con el arrendador o prestamista hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad.

g) El límite de *ingresos de la unidad convivencial será inferior a:

— 21.000 € brutos anuales (en caso de un solicitante).

— 35.000 € brutos anuales (en caso de dos o más solicitantes).

* Periodo de cómputo del importe de los ingresos.

Los ingresos brutos a considerar serán los de abril y mayo de 2020.

Con este dato, se obtendrá un ingreso equivalente a todo el año (14 pagas) y en consecuencia, se distribuirá la ayuda según los tramos establecidos en la tabla del artículo 7.

* En el caso de separados o divorciados, el importe de los ingresos se calculará deduciendo la pensión de alimentos por hijos, así como el importe de las cuotas mensuales correspondientes a las cargas hipotecarias.

h) Para poder optar a estas ayudas, el solicitante no podrá tener ahorrado en concepto de ahorro, un importe superior a 25.000 €.

EK\CV GAO-I-2020-01824

Edozein kasutan, onuraduntzat jotzeko, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta 887/2006 Errege Dekretuaren 18. artikulutik 29.era bitartekoetan, eta Azpeitiko Udaleko diru-laguntzak emateko ordenantza arautzaileetako 5. artikuluan ezarritako baldintzak bete izana egiaztatu beharko da.

*5. artikulua. Betekizunak.*

1. Laguntza hauez baliatu ahal izateko, errentamendu-kontratuek edo maileguek indarrean egon behar dute eta martxoaren 14a baino lehen formalizatuta egon behar dute, egun horretan indarrean jarri baita martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua, zeinaren bidez ezartzen baita Covid-19 birusak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma egoera.

2. Besteren konturako langileen kasuan, langabezia egoera data horren ondoren hasi behar da, eta behar bezala egiaztatu behar da osasun-larrialdiak eragindako krisiaren ondorioz hasi dela.

Ondorio horietarako, hala egin dela ulertuko da aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batean edo beste enplegu-espediente batzuetan jasotako kontratu-eteteak direnean, ezinbesteko kasuengatik edo bi kasuetan Covid-19 birusarekin lotutako arrazoi ekonomiko, tekniko, antolamenduko eta ekoizpenekoengatik.

Edozein kasutan, langabezi egoera eta osasun-larrialdiak eragindako kirisiaren arteko zuzeneko lotura akreditatzen duen beste Zuzenbideko frogabideak ere onartuko dira.

3. Langile autonomoen kasuan, diru-sarreren galera edo salmenten beherakada kalkulatzeko, 2020ko apirileko eta maiatzeko diru-sarrerak edo salmentak hartuko dira erreferentziatzat, alarma-egoera deklaratu aurreko seihileko naturalean egindako batez bestekoarekin alderatuta.

Halere, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren arabera jendearentzako irekiera etenda daukaten jardueren zerrendan jasotako sektoreren batean lan egiten duten pertsonen kasuan, kalteberatasun ekonomikoaren egoera aurrez halakotzen jotzen da, eta ez da egiaztatu beharko diru-sarren galdea edo salmenten beherakada hori.

*6. artikulua. Eskabideak aurkeztea: epea eta modua.*

1. Eskabideak aurkezteko epea zabalik egongo da deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik 2020ko ekainaren 15a arte.

2. Eskaerak eta erantsitako dokumentazioa bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztu ahal izango dira, Azpeitiko Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez (www.azpeitia.eus), tramite atarian sartuz –diru-laguntzak– eta horretarako eskuragarri dagoen eskabidea betez.

3. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa (eskaera orrian zehazturikoak).

Eskaerak deialdi honi atxikitzen zaion ereduari jarraiki aurkeztuko dira.

Diru-laguntza lerro honetarako eskatzaileak honako agiriak ere aurkeztu beharko ditu:

Orokorrean, kasu guztietarako:

1.— Eskabide-orria, behar bezala beteta eta sinatuta.

2.— Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren Nortasun Agiriaren edo egoitza-txartelaren fotokopia.

Adin txikikorik balego, Familia Liburuaren fotokopia ere aurkeztu beharko da. Azken agiri hori kasu guztietan aurkeztu beharko da senidetasuna egiaztatzeko, baldin eta ondorengotza alegatu bada.

3.— Etxebizitzaren alokairu-kontratuaren kopia, indarrean dagoena eta diruz lagundu daitekeen epe barnekoa.

En todo caso, para la consideración de beneficiario, habrá de acreditarse el cumplimiento de las condiciones establecidas en el artículo 13 de la Ley General 38/2003 y 18 a 29 del Real Decreto 887/2006 y artículo 5 de la Ordenanza Reguladora de Subvenciones de Azpeitia.

*Artículo 5. Requisitos.*

1. Para poder acogerse a estas ayudas, los contratos de arrendamiento o los contratos de préstamos deben estar en vigor y formalizados antes del 14 de marzo, fecha en la que entra en vigor el Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, por el que se establece el estado de alarma para la gestión de la crisis sanitaria provocada por el virus Covid-19.

2. En el caso de los trabajadores por cuenta ajena, la situación de desempleo debe iniciarse después de esa fecha y debe acreditarse debidamente que se ha iniciado como consecuencia de la crisis provocada por la emergencia sanitaria.

A estos efectos, se entenderá que así se ha producido cuando se trate de suspensiones de contratos contempladas en un expediente temporal de regulación de empleo u otros expedientes de empleo, por causas de fuerza mayor o en ambos casos por causas económicas, técnicas, organizativas y de producción relacionadas con el virus Covid-19.

En todo caso, se admitirán otros medios de prueba de Derecho que acrediten la relación directa entre la situación de desempleo y la de crisis provocada por la emergencia sanitaria.

3. En el caso de los trabajadores autónomos, la pérdida de ingresos o caída de ventas se calculará tomando como referencia los ingresos o ventas de los meses de abril y mayo de 2020, respecto a la media del semestre natural anterior a la declaración del estado de alarma.

No obstante, en el caso de las personas que trabajen en alguno de los sectores incluidos en la relación de actividades cuya apertura al público se encuentra suspendida según el Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, se considera que la situación de vulnerabilidad económica se produce de antemano, sin que sea necesario acreditar la pérdida de ingresos o caída de ventas.

*Artículo 6. Presentación de solicitudes: plazo y modo.*

1. El plazo de presentación de solicitudes estará abierto desde el día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa hasta el 15 de junio de 2020 (inclusive).

2. Las solicitudes y documentación adjunta podrán presentarse por medios electrónicos, a través de la sede electrónica del Ayuntamiento de Azpeitia (www.azpeitia.eus), accediendo al portal de trámites –subvención– y cumplimentando la solicitud disponible al efecto.

3. Documentación a presentar junto con la solicitud (detallado en la solicitud).

Las solicitudes se presentarán conforme al modelo que se adjunta a la presente convocatoria.

Para esta línea de subvención el solicitante deberá aportar la siguiente documentación.

En general, para todos los casos:

1.— Impreso de solicitud debidamente cumplimentado y firmado.

2.— Fotocopia del DNI o tarjeta de residencia de cada una de las personas demandantes de la ayuda.

En el caso de existir menores de edad, se aportará además, fotocopia del Libro de Familia. Este último documento será preciso, en todo caso, para acreditar la filiación en caso de alegar descendencia.

3.— Copia del contrato de arrendamiento de la vivienda, vigente y abarcando el periodo subvencionable.

EK\CV GAO-I-2020-01824

4.— Mailegu kontratua, indarrean dagoela egiaztatzen duen banku agiria.

5.— Banku kontu baten titularitatea egiaztatzen duen agiria.

6.— Estatu mailan etxebizitzaren jabe ez izatearen ziurtagiria, laguntza eskatzen duten 18 urtetik gorako kide guztiena, jabetza erregistroak igorria, laguntza eskaera eman baino gehienez 15 egun lehenagokoa.

Etxebizitza baten titular-kide izanez gero, aurkeztu beharreko agiriak:

— Herentzia kasuan, herentziaren onarpen-agiria eta etxebizitza-partaidetzaren eskritura.

— Dohaintza-kasuan, dohaintza-eskritura.

— Bi kasuetan, partaidetza saldu izan balitz: eskualdatzearen eskritura.

7.— Bizikidetza Unitateko kide guztien, eskaera orrian zehazten diren hilabeteei dagozkien diru-sarrera egiaztagiriak.

Etxebizitzan erroldatuta dauden adin nagusiko guztien diru-sarrerak kontutan hartuak izango dira.

8.— Banandu edo dibortziatuta dauden pertsonen kasuan:

— Epai irmoaren fotokopia bat, non zehazten den hitzartutako seme-alabengatiko mantenu pentsioa. Mantenu pentsioaren ordainketaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

— Mailegu kargei dagozkien hileroko ordainketen ziurtagiriak.

9.— Zinpeko aitorpena, beste diru-sarrera batzuk (zenbatekoa adieraziz) badaudela edo/eta beste erakundeetan diru-laguntza eskatu dutela adierazten duena.

— Lanbidek igorritako ziurtagiriak non zehazten diren Oinarrizko Errenta (OE) eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren (EPO) onuraduna den hala ez.

— Hala badagokio, onuradunak Azpeitiko gizarte larrialdietako edo udal laguntzetako diru-laguntza eskatu duela adierazten duen aitorpena.

Guzti horrez gain:

1. Erantzukizunpeko Adierazpena aurkeztu beharko da. Bertan adieraziz deialdi honetan arautuko laguntzaren onuradun izateko eskatzen diren baldintzak betetzen direla.

Eskabidean berariaz adierazi beharko dira familia-unitateko kide guztien diru-sarrerak, 2020ko apirila eta maiatzari dagozkionak.

2. Besteren konturako langileek honako hauek adierazi beharko dituzte eskabidean: zer enpresatan lan egin duten, enpresa horri dagokion jarduera ekonomikoaren sektorea eta langabezia-egoera zer egunetan hasi den.

3. Langile autonomoek eskabidean adierazi beharko dute zer jarduera ekonomikotan ari diren.

4. Ofizioz egiaztatuko dira.

— Zerga betebehar eta Gizarte Segurantzakoen egiaztatzea.

— Besteren konturako langileen kasuan, langabezi egoera ERTE edo antzeko baten ondoriozkoa dela.

— Langile autonomoen kasuan, langilea adierazitako jarduera esparruan altan emana dagoela.

5. Dena den, aurreko daturen bat egiaztatzea ezinezkoa bada, organo kudeatzaileek behar diren dokumentazio-eskaerak egingo dituzte.

4.— Copia del contrato de préstamo de la vivienda, documento bancario vigente y abarcando el periodo subvencionable.

5.— Documento que acredite la titularidad de una cuenta bancaria.

6.— Certificado de no ser propietario/a de vivienda a nivel estatal, emitido por el registro de la propiedad como máximo 15 días antes de la fecha de entrega de la solicitud de ayudas, de todas las personas solicitantes de la ayuda mayores de 18 años.

En caso de ser cotitular de una vivienda, será necesaria la aportación:

— En caso de herencia, aceptación de herencia y escritura de partición.

— En caso de donación, escritura de donación.

— En ambos casos, en caso de venta de la participación: escritura de transmisión.

7.— Justificantes de ingresos de todos los miembros de la Unidad Convivencial correspondiente a los meses que se detallan en el impreso de solicitud.

Se tendrán en cuenta los ingresos de todos los mayores de edad empadronados en la vivienda.

8.— En el caso de solicitantes separados o divorciados:

— Fotocopia de la sentencia en firme donde se estipule la pensión por manutención de hijos. Hay que presentar los justificantes de pago de la pensión por manutención.

— Justificante de pago del importe de las cargas hipotecarias mensuales existentes.

9.— Declaración Jurada en el que se haga constar en su caso, la existencia de otros ingresos (especificando la cuantía) y/o solicitudes de subvención realizada ante otras Instituciones.

— Certificados emitidos por Lanbide en los que se indique si es beneficiario o no de la Renta de Garantía de Ingresos (RGI) y Prestación Complementaria de Vivienda (PCV).

— En su caso, declaración donde se indique que el beneficiario ha solicitado ayudas de emergencia social en el Ayuntamiento de Azpeitia.

Además:

1. Deberá presentarse Declaración Responsable. En ella, se hará constar el cumplimiento de los requisitos exigidos para ser beneficiario de la presente ayuda.

En la solicitud deberán constar expresamente los ingresos de todos los miembros de la unidad convivencial correspondientes a los meses de abril y mayo de 2020.

2. Los trabajadores por cuenta ajena deberán indicar en la solicitud: la empresa en la que han trabajado, el sector de actividad económica al que pertenece dicha empresa y la fecha de inicio de la situación de desempleo.

3. Los trabajadores autónomos deberán indicar en la solicitud la actividad económica en la que ejercen su actividad.

4. Se verificarán de oficio:

— Acreditación de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social.

— En el caso de trabajadores por cuenta ajena, que la situación de desempleo de los trabajadores es consecuencia de un ERTE o similar.

— En el caso de trabajadores autónomos, que esté dado de alta en el ámbito de actividad indicado.

5. Si no fuera posible verificar alguno de los datos anteriores, los órganos gestores realizarán las solicitudes de documentación necesarias.

EK\CV GAO-I-2020-01824

*7. artikulua. Diru-laguntzen zenbatekoa.*

Diru-laguntzaren zenbatekoa, eskatzaileen diru-sarreren arabera ezarritako atal sistema baten oinarritzen da, atal bakoitzari portzentai bat esleituz.

*Artículo 7. Cuantía de las ayudas.*

La cuantía de la subvención se establece en un sistema de tramos establecidos según los ingresos anuales justificados de los solicitantes, adjudicándole a cada tramo un porcentaje.

ATAL SISTEMA

| *Diru-Sarrerak* | *Laguntza* |
|---|---|
| 0,00 € - 15.000,00 € | Alokairu / Maileguaren % 50 |
| 15.000,00 € - 21.000,00 € | Alokairu / Maileguaren % 40 |
| 21.000,00 € - 30.000,00 €<br>*Aukera hau, pertsona bat baino gehiagoz osatutako bizikidetza-unitate kasuetan bakarrik aplikatuko da | Alokairu / Maileguaren % 30 |
| 30.000,00 € - 35.000,00 €<br>*Aukera hau, pertsona bat baino gehiagoz osatutako bizikidetza-unitate kasuetan bakarrik aplikatuko da | Alokairu / Maileguaren % 20 |

SISTEMA TRAMOS

| *Ingresos* | *Ayuda* |
|---|---|
| 0,00 € - 15.000,00 € | Alquiler / Préstamo 50 % |
| 15.000,00 € - 21.000,00 € | Alquiler / Préstamo 40 % |
| 21.000,00 € - 30.000,00 €<br>*Esta opción, sólo se aplicará a unidades convivenciales compuestas por dos o más personas | Alquiler / Préstamo 30 % |
| 30.000,00 € - 35.000,00 €<br>*Esta opción, sólo se aplicará a unidades convivenciales compuestas por dos o más personas | Alquiler / Préstamo 20 % |

— Diru-sarreren zenbatekoa kontatzeko epealdia:

Kontuan hartuko diren diru-sarrerak gordinak 2020ko apirila eta maiatzekoak izango dira.

Datu honekin urte guztiari dagokion diru-sarrera baliokidea aterako da (14 paga) eta horren ondorioz, taulako atalen arabera laguntza banatu.

— Diru-laguntzaren zenbatekoa: Gehienez hilean 250 € eskaera bakoitzeko.

Banatzeko diru-laguntzen zenbateko osoak dagokion aurrekontuko partidan esleitutako zenbatekoa gainditzen badu, zenbateko hori diru-laguntza guztien artean proportzionalki banatuko da.

*8. artikulua. Kudeaketa eta ebazpena.*

Azpeitia Berritzen SA sozietate publikoari dagokio Udalean jasotako eskabideen Kudeaketa. Sozietate hori arduratuko da eskabideak jasotzeaz eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzeaz, eta dagokion ebazpen-proposamena egingo du, bai eta behar diren aldaketak ere.

Laguntzak ez dira argitaratuko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Hala ere, programa amaitzean Azpeitiko udalaren gardentasun atarian eta webgunean emandako laguntzen kopurua eta zenbateko osoa argitaratuko dira.

*9. artilulua. Bateraezintasuna.*

Deialdi honetan jasotako laguntzek izaera subsidiarioa dute. Hau da, eskatzaileek deialdi honek diruz lagundu nahi duen xederako Gizarte Larrialdietarako laguntza, Udal Laguntza, Gaztelagun programa eta antzekoak jasotzeko baldintzak betez gero, aipaturiko laguntza horietara bideratuko dira. Eta laguntza hauek beraz, beste laguntzek babesten ez dituzten eta deialdiak jasotako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileetara daude bideratuta.

— Periodo de cómputo del importe de los ingresos:

Los ingresos brutos a considerar serán los de abril y mayo de 2020.

Con este dato, se obtendrá un ingreso equivalente a todo el año (14 pagas) y en consecuencia, se distribuirá la ayuda según los tramos establecidos en la tabla del artículo 7.

— Cuantía de la ayuda: máximo 250 € al mes por solicitud.

En el caso de que el importe total de las subvenciones a distribuir supere el importe consignado en la partida presupuestaria correspondiente, dicho importe se distribuirá proporcionalmente entre todas las subvenciones.

*Artículo 8. Gestión y resolución.*

Corresponde a la sociedad pública Azpeitia Berritzen SA la gestión de las solicitudes recibidas en el Ayuntamiento. Dicha sociedad se encargará de la recepción de las solicitudes y de verificar el cumplimiento de los requisitos y elaborará la correspondiente propuesta de resolución, así como las modificaciones que sean necesarias.

Las ayudas no se publicarán en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. No obstante, al finalizar el programa se publicará el número y el importe total de las ayudas concedidas en el portal de transparencia y página web del Ayuntamiento de Azpeitia.

*Artículo 9. Incompatibilidad.*

Las ayudas regogidas en esta convocatoria tiene carácter subsidiario. Es decir,si los solicitantes cumplen las condiciones señaladas en las Ayudas de Emergencia social, ayudas municipales, programa Gaztelagun o similares en relación al objeto de estas ayudas, las solicitudes se redireccionarán a las mismas. Por lo tanto, estas ayudas van dirigidas a cubrir las solicitudes que no se encuadran en las ayudas anteriormente señaladas, siempre y cuando los solicitantes cumplan los requisitos exigidos para la concesión de las mismas.

EK\CV GAO-I-2020-01824

Deialdi honetan jasotako laguntzek izaera subsidiarioa dute. Hau da, eskatzaileek deialdi honek diruz lagundu nahi duen xederako Gizarte Larrialdietarako laguntza edota Udal Laguntza jasotzeko baldintzak betez gero, aipaturiko laguntza horietara bideratuko dira. Eta laguntza hauek beraz, beste laguntzek babesten ez dituzten eta deialdiak jasotako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileetara daude bideratuta.

*10. artilulua. Errekurtsoak.*

Deialdi honen aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean hura onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean. Epeak oinarri hauek argitaratu eta biharamunetik hasiko dira zenbatzen.

Las ayudas contempladas en la presente convocatoria tienen carácter subsidiario. Es decir, en el caso de que las personas solicitantes cumplan los requisitos para acceder a las Ayudas de Emergencia Social y/o Ayuda Municipal para la finalidad para la que esta convocatoria se propone subvencionar, se destinarán a las citadas ayudas. Y, por tanto, estas ayudas están dirigidas a solicitantes no amparados por otras ayudas y que cumplan los requisitos recogidos en la convocatoria.

*Artículo 10. Recursos.*

Contra la presente convocatoria podrá interponerse recurso de reposición en el plazo de un mes ante el órgano competente para su aprobación, o directamente recurso de impugnación ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses. Los plazos se computarán a partir del día siguiente al de la publicación de estas bases.

EK\CV GAO-I-2020-01824